

# Fontes

Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpen berriak

euskararen ikerketari

Nuevas aportaciones al

estudio de la lengua vasca

## Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak

MIKEL MARTÍNEZ ARETA

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia

Dorota Krajewska

Eneko Zuloaga

Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

---

---

# Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak

Basque toponyms of Enkarterri of the PN-(h)aran/(h)uri type

---

MIKEL MARTÍNEZ ARETA

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

josemiguel.martinez@ehu.eus

---

JASOA: 2019/07/31 | BEHIN-BEHINEAN ONARTUA: 2019/08/08 | BEHIN BETIKO ONARTUA: 2019/12/05

---

---

Lan hau bi proiekturen babespean egin da: (1) *Monumenta Linguae Vasconum 5: Periodización y cronología (MLV5)* [FFI2016-76032-P] ikerketa-proiektua, Blanca Urgellek zuzendua eta Espainiako Gobernuako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak babestua; eta (2) *Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada (HMLV-LHC)* [IT1344-19], Joaquín Gorrochateguik zuzendua eta Eusko Jaurlaritzak babestua. Bestalde, bihoazkie nire eskerrak Carlos Glaríari lanean zehar aipatuko diren zenbait informaziorengatik, eta Joseba Abaituari egindako ohar batzuegatik.

---

---

---

## LABURPENA

Lan honetan Enkarterriko zenbait euskal toponimo deantroponimikoren azalpen historiko bat eskaintzen da. Toponimook Sopotan, Galdamesen eta Zallan daude, pertsona-izen-(h)aran egitura dute (batek (h)uri), eta beren orokortasunean harturik lurraldearen behinolako antolaketa bat sala lezakete. Horretarako, toponimo horien atzean dauden antroponimoen hedadura eta kronologia aztertzen dira, eta osatzen duten multzoak Nafarroak XI. mendean Gaztelarekin zuen gatazkaren barnean sustaturiko muga geo-estrategikoarekin zerikusirik izan lezakeela ondorioztatzen da.

## ABSTRACT

In this paper, a historical explanation for some deanthroponymic toponyms of Enkarterri is put forward. These toponyms are in Sopotan, Galdames and Zalla, have a structure consisting of person-name-(h)aran 'valley' (one with (h)uri 'town' instead), and, taken as a whole, they might point towards an ancient territory-organizing process. For that purpose, the extension and chronology of the anthroponyms behind those toponyms are studied, and the conclusion is drawn that the cluster they form might be related to the geo-strategic frontier promoted by the Kingdom of Navarre in the 11th century, within the conflict it had with the Kingdom of Castile.

**Gako-hitzak:** Enkarterri; toponimo deantroponimikoak; antroponimoak; lurraldearen antolaketa; Nafarroako Erresuma.

**Keywords:** Enkarterri; deanthroponymic toponyms; anthroponyms; organization of the territory; Kingdom of Navarre.

## 1. Sarrera

Enkarterri nolabait historikoki inorena izan ez den lurralde batean dago, eta luzaz ez zen ondo definituriko ezein jurisdikziotan zeharo integraturik egon. Horrez gain, edo horren ondorioz hain zuzen, Behe Erdi Aroan monasterioetatik edota diploma-ekoizpeneko bestelako guneetatik urrun geratzen zen. Valpuestatik erlatiboki hurbil izan arren, eta hura elizbarrutia izan zen bitartean bere parte izan bazen ere, monasterio haren jarduera ez zegoen Enkarterrirako norabideari begira, eta Donemiliagako monasterioak edota San Juan de la Peñako monasterioak ere ez zuten, Bizkai nuklearrean ez bezala, hartan interesik. Honek dakar Enkarterriko toponimia oro har txarto eta berandu dokumentatzea. Aro Modernoaren hasieratik aurrera, eta gaur egun oraindik ere, herrigune garrantzitsuei dagozkien hainbat toponimoren lehen agerraldia ez da azaltzen oso garai berankorretara arte. Lekukotasunez berez gain, datuen urritasun muturreko honek Erdi Aroan lurraldea moldatu zuten eta Asónen eta Bizkaiko Jaurerriaren artean Becioko Merindadea eratu zuten prozesu historikoak ezagutzea ere eragozten digu, inguruko beste lurraldeekin erkaturik behinik behin.

Gabezia horiek konpontze aldera, ahalik eta etekin gehien atera behar zaio Aro Modernora iritsi diren toponimoek berekin dakarten informazio ihartuari. Gure kasuan, arreta emango diogu Fernández Palaciosen (2011) egungo Enkarterriren erdi-erdian ikusi uste duen toponimo deantroponimikoen multzo bati. Toponimoon oinarrian antroponimo edo pertsona-izen (hemendik aurrera, PI) bat dago, eta PI orok kronologia bat dauka eta jatorri geografiko bat adieraz dezake.

2. atalean, beraz, Fernández Palaciosen ikuspegi hau aurkeztuko dut eta honelako datuetatik informazioa ateratzeko erabiliko dudan metodologia azalduko dut. 3. atalean, toponimo horien agerraldiak eta berauetan dautzan antroponimoen azterketa egingo dut. 4. atalean, Fernández Palaciosen populatze-prozesua nola gertatu zatekeen proposatuko dut, beroni paralelo bat eskainiz.

## 2. Enkarterriren erdialdeko PI-(h)aran/(h)uri toponimoak

Laburtasunaren mesedetan, Enkarterriren kokapen geografikoa eta haren Erdi Aroko historiaren inguruko gorabeherak bazter utziko ditut (historiari buruz 4. atalean zerbait esan badugu ere), eta zuzenean lan hau hari buruz idaztera bideratu nauen Fernández Palaciosen pasarteak aurkeztuko dut:

Hay un grupo de topónimos que puede estar indicando las funciones que en la toponimia romance debieron realizar denominaciones del estilo *Valtezana*, etc. vistas más arriba: se trata de casos como *Gasterán* (GALD), *Ocharán* (SOP, TR, ZAL, s. XV), *Urrarán* (GÜE), *Muñerán* (ZAL), *Sollarán* (SOP), que indican una organización del espacio anterior al siglo XV y basada en nomenclatura específicamente vascuence. Quién sabe si estamos aquí ante restos de los primeros poseedores de habla vascuence (Fernández Palacios, 2011, 171. or.).

Egungo Enkarterrin, asko orokortuz, ekialdeko herenean toponimo txiki asko euskaldunak dira; gainerako bi herenetan, ostera, toponimo txiki ia guztiak erromanikoak edo aurre-erromanikoak dira. Horrek inplikatzan du euskal toponimiako lurralde horretan Behe Erdi Aroan euskaraz hitz egin zela. Bada, Fernández Palaciossek eztabaidaritzen dituen toponimoak oro nola edo hala behinola euskararen eta erromantzearen arteko mugak egon behar izan zuen tokitik hurbil koka ditzakegu.

Toponimook dauden ingurumarian (Zalla, Gueñes, Sopusuerta, Galdames), errom. *vallen* gainean eratuak ere badira, eta balirudike (*h*)*aran* motakoak haien kalkoak izan litezkeela. Fernández Palaciossek (2011, 166-167. or.) proposaturiko batzuk honakoak dira: *Valdivián* (Galdames; ← *Vianus*), *arroyo de Valdebeci* (Sopusuerta; < *Val de Vetī* ← *Vetius*), *Valtezana* (Galdamesko mendia; < *vallis Tettiana*, *Tezana* bat Santoñako 863ko agiri batean dokumentatuta dago).

Horrek eta Fernández Palaciossek aipatzen dituen beste elementu batzuek adierazten dute goragoko aipuko toponimoak (eta haietaz bakarrik ari naiz eta arituko naiz ondoko ataletan) eremu erromaniko baten gainean eratu zirela. Noiz? Hauxe da lan honen sakoneko galdekizuna, eta gaztigatu behar dut, aldez aurretik, mahairatuko dudan proposamena ez dela egiaztagarria izango, gorago aipatu den dokumentazio-iluntasunaren ondorioz.

Baina, zailtasunak zailtasun, diziplina toponimikoan badira datu gordinez haraindi joaten lagun diezaguketen baliabideak. Toponimo deantroponimikoen, zehazki, behinolako lur baten edo leku baten jabe, fundatzaile edo birpopulatzailen inguruko informazio ezin baliagarriagoa eskaintzen digute. Izan ere, beren barnean dituzten PIen kronologia arakatuz (kartularioetako, errege-kantzilergoetako eta abarretako agirietan aurki daitekeena), dagozkien toponimoen estratigrafia bat ezarri ahalko dugu, hein batean behinik behin, bai eta jatorri bat, edo jatorri posibleen multzo bat ere.

Hori da Fernández Palaciossek aipaturiko toponimoekin egiten saiatuko naizena, haien sorrerarako tarte kronologiko (nahiko zehatz) bat proposatuz. Horretarako, premisa batetik abiatuko naiz: toponimo horiek multzo bat osatzen dute, hau da, aldi bertsuan eratu ziren, arrazoi historiko-politiko berberaren ondorioz.

Fernández Palaciosen multzoari PI-(*h*)*aran*/(*h*)*uri* motako bi toponimo gehituko dizkiot: Sopusuertako *Obékuri* eta Galdamesko *Umaran*. Hauek ere sartuko ditut, lehenaren -*uri* gorabehera (*vs* gainerakoien -*aran*), uste baitut aurreko prozesu berberaren barnean kokatu behar direla: geografikoki Fernández Palaciosenetatik erlatiboki hurbil dira, eta beren barnean dakartzaten PIak jatorri geografikoari eta estratigrafia kronologikoari dagokienez aztergai dugun multzokoekin erkagarriak dira.

Haatik, *Urraran* zerrendatik kendu dut, ez baitut ikusten haren oinarrian PI bate-re bideragarririk (deskribatzailea izan liteke: ‘hurren harana’, menturaz). Era berean, ez ditut aintzat hartuko multzo honetakotzat hartzekoak ez diren Enkarterriko beste hainbat toponimo deantroponimiko. Adibidez: *Alonsotegi*, Zallako *Lutxana* (agian ← lat. *Lucius*, aurreko kronologia batekoa), Alonsotegiko *Muniaran* (hartan Bañalesek eta Gorrotxategik [2007, 195. or.] *Muño-aran* deantroponimikoa ikusi arren gure multzo-koetatik urrutiegi baitago), eta abar.

Zalantza izan dut besteren bat ere sartu behar ote nukeen (bakarrik bi aipatzearren: Zallako *Maruri* eta Gueñeseko *Santxosolo*), baina funtsean arazoaren muina ez litzateke aldatuko, eta bestalde, zerrenda luzatzeak lan honi ezarri behar diodan mugaz haraindi eramam nintzake.

### 3. PI-(h)aran/(h)uri motako toponimoen eta haiei dagozkien PIen azterketa

**Gasteran** (Galdames). EAE-IGan bi sarrera ditu, entitate berari dagozkion arren: bata tontorra edo gailurra, bestea (*Hoyos de Gasteran*) mendi-hobiak. Carlos Glariak baieztatu didanez, bere inkestetan *Gasterán* azentuera jaso du.

Bigarren osagaiaren bokalismoa (-*aran* eta ez -*eran*) nola sortu zatekeen ez da argi: disimilazioz izan liteke (ik. *Muñeran* sarrera), edo \**Gaste-haran* elkartuaren soluzioetako bat (baina *Umaranen* ez bide da gertatzen, testuinguru berean; ik. bertan). Oso gertu, mendi-lerro berean, badu *Ganeran* mendia, eta bien artean nolabaiteko erakarpen formal bat egon liteke.

ANTROPONIMOA. Printzipioz atzean egon litekeen antroponimoa *Gaste* edo *Gastea* dugu. Ez badugu *Gar(t)ze(a)*rekin lotzen (eta honek gairitzen oso zailak diren eragozpenak ditu, nire iritziz)<sup>1</sup>, izen hau urri eta berandu dokumentatzen da. Izan ere, lehenaren lehen agerraldia, etimologia zuzena bada, Arabako hiriburuarena da, Donemiliagako Goldean: *Gastehiz* (1025; Cog-583). Irigoyenen (1982) etimologia honek, ordea, zalantza gutxi eskaintzen du. -*iz* atzizkidun patronimiko bat inplika lezake, edo, Salaberrirekin bat, egitura genitibozko arrunt bat. Baina, edozein kasutan, 1025 baino lehen Arabako Lautadan *Gaste* bat izan zela inplikatzeko du.

<sup>1</sup> Ideia Irigoyenena da (*apud* Salaberri, 2003, 197. or.). *Gartzeatik Gastea* sortuko zen, *bor(t)z > bost*, *ber(t)ze > beste*, *or(t)zegun > ostegun* azaltzeko Mitxelenak erabili zuen *interbertsio* prozesu beraren bidez (FHV, 363-365. or.). Baina gure kasua ez da horiekin erkagarria. Hasteko, dardarkaridun abiapuntua ez da izen komun bat, izen berezi bat baizik (gainera agerpen homogeneorik ez daukana, Nafarroa duelako irradiazio-puntu). Gertatzekotan, *Gar(t)ze > Gaste* izen berezian gertatuko zen bakarrik, inondik ere izen komunean, beronetan *gaste* (lepokariarekin) daukagulako (are gehiago, euskalki guztietan). Bigarrenik, Mitxelenak aipatzen dituen bikoteek euskalkien arteko banaketa antzekotsua agertzen dute (*bost* bizk., arab. eta gip. / *bortz* lap. eta behe + goi-naf. / *bost* zub. eta erronk., eta abar; ik. OEH), horrek aldi bereko gertakari bat adierazten bide du, *Gastea* antroponimoena baino kronologia askoz goiztiarragokoa. Hori guztia kontuan harturik, nire iritziz bideragarriagoa da onartzea *Gaste(a)* antroponimoa *gaste* izen komunetik datorrela. Izen komunaren lepokaria euskalki orotan azaltzen da, baina *gaste* ere oso zabaldua dago (ik. OEH).

Gainerakoak askoz berankorrak dira, eta gehienak Nafarroan edota Iparraldean kokatu behar ditugu (Salaberriren [2003, 196-197. or.] lanetik atera ditut hauek zein patronimikoak, baina hautaketa bat eginik): *Guastea* (Erriberri, 1244; Irigoyen, 1982, 623-624. or.), *Gaszte, madre de Puyah* (Berroeta, 1366; PNXIV, 532. or.), *Gastea d'Alçayaga* (Lesaka, 1366; PNXIV, 567. or.), *Gastea de Lana* (Lizarra, Arenal, 1366; PNXIV, 609. or.), *Gaste Laharrga, Gaste Leharriga* (Ortzaitze, 1388; ONPB, 591. or.), *Gastea d'Espaster* (Bilbo, 1464~92; FDMPV-71), *Gastea d'Arriquirar* (Bilbo, 1464~92; FDMPV-71).

Patronimikoak ere badira: *Pero Gasteyz; Lope Gasteyz* (Artatza, 1350; PNXIV, 364. or.), *Enequo Gasteyz* (PNXIV, 365. or.), *Lope Gasteyz; Sancho Gasteyz* (Gollao, 1350; PNXIV, 365. or.), *Miguel Asteyz* (Alli, 1366; PNXIV, 527. or.), *Miguel Asteyz* (Eratsun, 1366; PNXIV, 570. or.), *Maria Gasteyz de Erna(n)i* (Donostia, 1466; FDMPV-58).

*Gasteiz* toponimoaren gainerakoekiko erkaketa txundigarri gerta dakiguke, hala Arabakoa delako nola askoz goiztiarragoa delako. Bi gauza nabarmendu nahi nituzke. Batetik, Arabako (eta batez ere Lautadako) antroponimia askoz urriago dokumentatzen da Erdi Aroan zehar, Nafarroakoa baino. Nafarroako lekukotasun ia guztiak Karlos Gaiztoak enkargaturiko erroldetan daude. Horrek garaiko kartografia antroponimiko zehatz bat ahalbidetzen du, Arabak (eta Bizkaiak) garai berean ez dutena, eta gertakari horrek desoreka eragin dezake, neurri handi batean bederen. Bestetik, *gaszte* izen arrunt bat ere bada euskaraz, eta euskal antroponimian, jada akitanian inskripzioetan, baina behintzat Aro Modernoaren hasierara arte, berezko antroponimoa eta izen arruntaren arteko muga lausoa izan da. Honek eragin dezake *Gaste(a)*ren agerpena garai eta leku sakabanatuetan, 1464~92ko Bilboko eta 1466ko Donostiako agerraldiek erakusten duten moduan (ik., halaber, Arzamendi, 1985, 253. or.). Ez dezagun ahaztu Laudioko *Gastaka* auzoa, ez eta Lana bailarako *Gastiain* eta Logroñoko *Valdegastea* auzoa.

Hartara, antroponimoak berez ez digu jatorri zehatzik adierazten. Araba hautagai ona litzateke, baina ez dago horretarako ezin eztabaidatuzko argudiorik.

**Muñeran** (Zalla). EAE-IGN, egun auzoa da, eta azentuera *Muñeran* da (neu inkestazaile). Ander Rosek eta Marco Royo Ruizek ohartarazi didatenez, Valladolideko Kantzularitza Artxiboan bada *S.º de Santibañes de Muñeran* (1563; ARCHV, Bizkaiko gela 4523/023), eta Deustuko Unibertsitateko Artxibo Historikoan *sierra de Muñeran* (1647; Maiorazkoak 0015/037).

ANTROPONIMOIA. Mendi-magal batean dagoen auzoa da, Salcedo haranaren bazter batean. Hortaz, azalpen deskribatzailea ere posible litzateke. Baina, batetik, ez dut argi ikusten zer izan litekeen 'muino-haran'; bestetik, Barakaldon bada *Munoa* (ez \**Muñoa*; ik. [Bañales & Gorrotxategi, 2007, 195. or.]). Forma honetan oinarriturik, Alonsotegiko *Muniaran* (horrela 1796an lekukotua) toponimorako 'Munioren harana' interpretazioa nahiago dute autoreok, eta etimologia berean pentsa genezake gurerako.

*Munnio* (eta aldaerak) izenaz den bezainbatean (hau da, toponimo horren oinarrian antroponimo hau dugula suposaturik), etimologia eta *Nunnurekin* identikoa den ala ez eztabaidatzea ez da gure helburua hemen (ik. Salaberri, 2003, 219-221. or.). Interesgarriagoa da non zen sarriena haren agerpena Erdi Aroan, eta non altuena haren kopuru erlatiboa. Bada, Petersonek (2010, 110. or.) egiten duen 1050era arteko agirien azterketan, 219 pertsonatarik Araban 10 antroponimo maizkoenak honakoak dira (zenbakiek

pertsonak adierazten dituzte, ez agerpenak): *M/Nuño* 49<sup>2</sup>, *Tello* 18, *Beila* 17, *Oveco* 12, *Alvaro* 9, *Ulaquide* 8, *Diego* 7, *Sarrazin* 6, *Ferruzo* 4, *Juan* 4.

Gaubearen inguruan, *ranking* berbera honakoa da (Peterson, 2010, 111. or.): *M/Nuño* 62, *Oveco* 42, *Tello* 37, *Alvaro* 28, *Diego* 24, *Beila* 18, *Gonzalo* 17, *Felix* 11, *Vicente* 10, *Garcia* 10.

*Castella Vetulan* (Peterson, 2010, 111. or.): *M/Nuño* 37, *Gonzalo* 15, *Diego* 14, *Oveco* 10, *Rodrigo* 10, *Fortun* 9, *Pedro* 8, *Garcia* 6, *Lope* 6, *Alvaro* 5.

Bureban eta Burgosen ere *M/Nuño* lehen kokalekuan dago rankingean. Izan ere, bi eskualdeotan lehenaren eta bigarrenaren arteko jauzia bereziki handia da. Nafarroan, ordea, *M/Nuño* ez da 10 maizkoenen artean sartzen (11.a da), baina ez da ahaztu behar toponimian zenbait *Muniain* ditugula (Artzibar, Gesalatz, Iguzkitzaibar / Solana; ik. Salaberri, 2017).

Bizkaian ere badira *Muñoak*, XI. mendera arte, Cog-eko eta CSJpko aurkibideetan miatuz ikus dezakegun bezala (Bizkaiari dagozkion agirietan). San Agustin Etxebarria-koaren monasterioaren fundazio-agirian esaterako (ik. TAV, 31-32. or.), patronimikoak barneratuz (baina errepikapenak saihestuz) antroponimo bana eslei dakiekeen 36 pertsonetarik (nire zenbaketaren arabera, bi emakume barne), bi *Munio* ditugu. Bizkaiko Goi Erdi Aroko inskripzioetan ere baditugu zenbait (ik. EIMPV). Antroponimo bat eslei dakiekeen 42 pertsonetarik (nire zenbaketaren arabera), 3 *Mun(n)io* dauzkagu (bat *Mu-* berrezarriarekin); gehi *Monico* bat eta *Munin[co]* bat (agian gure antroponimoaren eratorriak).

Aitzitik, FDMPVn oso zaila da *Muñorik* (edo aldaera fonetiko-grafikorik) aurkitzea, eta ia ezinezkoa patronimikoetatik kanpo. LBFn ere ez dago aurkibidean (*Muñatones* bera PI honen eratorri baten patronimiko fosildu bat izan litekeen arren). Balirudike, beraz, XI. mendetik aurrera gainbehera malkartsuan sartu zela PI hori, Bizkaian.

Hemen ere hautagai nagusia aztergai dugun *Muñoren* jatorria izateko (honen atzean PI bat badatza, noski) Araba dela esango nuke. Eskualde hori eta Gaztela izan ziren Goi Erdi Aroan antroponimo horren irradiazio-puntu nagusiak, baina, haietarik, Araba hoberestekoa izan liteke toponimoaren egitura euskalduna delako ('Muñoren harana') eta eskualdean toponimia txikia euskalduna delako (zehazkiago, euskaldun mendebaldarra). Dena den, aurrekoan bezala, isolaturik ikusita ez dago ezin eztabaidatzeko argudiorik ustezko *Muño* hau Arabatik datorrela baieztatzeko.

**Obekuri** (Sopuerta). EAE-IGN daudenetarik, Sopuertakoa auzoa da. Carlos Glariak baieztatu didanez, herri-ahoskera egun honakoa da: *Obékuri* (edo *Obékori*). Ikertzaille berak ohartarazi dit Lope Gartzia Salazarrekoaren *Garcia de Ubicurri* dugula lehen agerraldia (LBF, 130. or., Sopuertako leinuez ari dela), kopiatzailearen akatsa tarteko.

ANTROPONIMOA. Toponimo deantroponimiko hau ezin esanguratsuagoa da eta aproposagoa gure analisisirako. Zerrendako gainerakoak prozesu bakar batean ezin sar balitez ere, honek bakarrik, ziurtasunetik hurbileko probabilitate batekin, (*H*)*obeco* ize-neko kolono baten berri emango liguke. Are gehiago, gainerakoekin erkatuz, honetan

<sup>2</sup> *Munnio* eta *Nunnu* antroponimoen artean, maiz nahasmena dago agirietan, eta hain da horrela ezen autore batzuek izen bakar baten aldaeratzat jotzen dituzten. Ez da Petersonen kasua, baina gauzak errazte aldera elkarrekin aztertzen ditu. Esan behar da *Munnio Nunnu* baino maizkoagoa dela. Arabako rankingean proportzioa 32 / 17 da (orotara 49).



jatorri posibleen eremua nabarmenki murrizten da, eta eslei dakioken kronologia ere ez da hain zabala.

Euskal lurraldeen barnean, PI horren izaera arabarra kasik eksklusiboa da: urri eta berandu dokumentatzen da Nafarroan eta Bizkaian, toponimo honetatik kanpo. Aitzitik, *Muñeran* sarreran ikusi dugunez, Gaubean eta *Castella Vetulan* ere bigarrena eta laugarrena da *rankingean*; bestalde, Bureban hirugarren maizkoena da, eta Burgo- sen zazpigarren maizkoena (Peterson, 2010, 111. or.). Ojan eta Nairan, ordea, ia ez da agertzen (Peterson, 2009, 427. or.).

Horrek esan nahi du haren irradiazio-puntua ziur aski Araba dela, eta hori nire iritziz Piren euskal etimologia baten alde mintzo zaigu (*hobe* + *-ko*, erka lat. *Melioretus*). Dena den, hau ez da azalpen etimologiko bakarra (ik. Salaberri, 2003, 222-223. or.), eta haren onarpena ez da funtsezkoa gure eztabaidarako.

Arras deigarria da Sopusertako *Obekuri* non eta Trebiñun duen toponimo bikia: *Obécuri*, Donemiliagako Goldean *Hobecori* formapean dokumentatzen dena (1025; Cog-583). Horrek ez dakar gurea zehazki handik datorrenik, baina Arabako lekukotasunak batik bat lurralde honen hegoaldean (Trebiñu barne) sakabanatzen dira (Argoteko San Andresen bada *Hobeco* presbiteroari eskainiriko X. mendeko epigrafe bat; ik. EIMPV, 125-126. or.), eta esan bezala, Gaubean ere haren agerpena sarria da.

Kronologikoki ere aski ondo zedarri dezakegu (*H*)*obeco* antroponimoa, 1100 urtetik aurrera ia ez baitu agerraldirik. Cog-eko lema antroponimikoen aurkibidean, 3 / 96 baino ez dira data hori baino geroagokoak, berankorrena 1178koa dela. Valp-koan, 10 baino ez dira 1120 baino berankorragoak (erlatiboki oso gutxi).

**Otxaran** (Zalla). Aztergai dugunak bi sarrera ditu EAE-IGN: biztanle-entitatea (printzipioz jatorrizkoa; Zallari dagokio bakarrik), eta erreka, errekastoa, latsa (Zalla eta Sopuserta zeharkatzen ditu). Azentuera *Otxáran* da (neu inkestatzaile).

Otxoa Garaik (2015, 325-326. or.) aipatzen dituen lekukotasunez gain (denak 1643tik aurrerakoak), nik *Ocharan* aurkitu dut burdinolen inguruko 1499ko agiri batean (FDMPV-51). Abizena ere bada, XVI. mendetik, Zallaren inguruko herrietan (ik. DK).

ANTROPONIMOA. Ezin bazter dezakegu toponimo honen jatorri deskribatzailea. Erka bitez Nafarroako *Otsagabia* eta *Otsabide*, inondik ere deantroponimikoak ezin izan litezkeen bi baino ez aipatzearren (ik. AV, 144. or., era guztietako adibide gehiagotarako). Gogora dezagun Fernan Gonzalez Gaztelako kondeak San Miguel de Pedrosori hiru monasterio ematen dizkion agirian *Ocharanna* ageri dela (Ballocako terminoa, Puras de Villafranca, Belorado, 945; Cog-337). Marka bedi artikulua.

Dena den, jatorriz antroponimikoa balitz, \**Otxoa-(h)aran*-etik abiatu beharko genuke, sakramentu-agirietan Azkoitia abiapuntu duen *Ochoategui* abizenean bezala (ik. DK). López de Guereñuk honako datuok aipatzen ditu Arabarako (*apud* Otxoa Garai, 2015, 323. or.): *Ochoaran* (1740, «labrantío de Payueta»), *Ocharan* (1742, aurrekoaren berbera).

Erdi Aroan, haren foku irradiatzailea Mendebaldeko Pirinioan eta Nafarroan bilatu behar dugula dirudi, eta honetan Gaskoiniako dukerriaren eragina (zeinetatik Euskal Herriari sustraituriko *Lope* ere mailegatu zen) ez da gutxiestekoa, Antzinatean akit. *Osson* eta *Oxson* jada baditugun arren. Leir-ko aurkibidean, 9 *Otxoa* topatu ditut, grafia ezberdinekin. Lehenak: *Oggua Sancionis* ([991]; Leir-11), *dompno Osxoa de Artesano* (1057; Leir-52).

Erabili ditudan iturrietan, dena den, agerpen goiztiarrena mendebaldean dugu: *Ozoa* (Buezori dagokion agiri batean, 950; Valp-21), irakurketa zuzena bada. Donemiliagan, bakarrik patronimiko batean dokumentatzen da: Fortun Otxoiz, grafia ezberdinekin, 1013-50 bitarteko agiri askotan azaltzen den handiki nafarra da (Vigueran tenente).

Bestalde, badira antroponimo honen eratorri baten hiru kasu mendebaldean (Arabaz haraindi, alegia): *Oggando* (Berberanan mugakide, 1079; Cog-290), *Oggando* (Berceoko lur baten emaile, 1063 baino lehen; Cog-4), *Oggando* (Zarratonen fidatzaile, 1054; Cog-191). San Agustin Etxebarriakoaren monasterioaren fundazio-agiriko emaileen artean ere bada antroponimo honen kasu bat, patronimiko batean: *Munio Ossandoç de Arroita* (ik. TAV, 31-32. or.).

Aurreko guztia ikusita, eta beti ere *Otxararen* atzean antroponimo bat izango bagenu, honen eta agian beroni legokiokeen kolonoaren jatorria Nafarroa edo Araba izan liteke.

**Sollaran** (Galdames). Ia beti susmagarria den Sasiaren informazioa aipatuz, Fernández Palacios (2002, 1292. or.) Avellanedako terminotzat jotzen du (Sopuertan). Nik ez dut inon Sopuertako *Sollaran*ik topatu, eta EAE-IGN ez da ez Sopuertan ez inon izen horretako toponimorik agertzen. Carlos Glariak esan didanez, berak ezagutzen eta inkesten bidez jaso duena Galdamesen dago, egun *Solláran* azentuera du, eta Larrea eta La Cabreta auzoen arteko soroa da.

ANTROPONIMOA. *X-(h)araren* multzoan sartu ahal izateaz gain, baliteke Zallako *Sollano* auzoarekin (berau beste *anodun* deantroponimiko bat bada) jokoa egitea, Fernández Palacios (2002, 1292. or., 2011, 171. or.) proposatu legez, eta hala balitz, *Soll-* antroponimo bat izango genuke bietan. Gerta liteke, orobat, bi toponimook deskribatzaileak izatea, baina ez da erraza kasu honetan zer litzatekeen zehaztea. *Sollanoren* kasuan (beti ere Fernández Palaciosen arabera) *so-* + *llano* 'ordokipe' izan liteke, edo bestela *solo* 'heredad'-en aldaera sabaikaritu bat + *-no* txikigarria, hitz-eratorpeneko aldaketa tarteko. Bi aukerotarik, *Sollaran*erako bigarrena baino ez litzateke posible.

*Soll-* antroponimo bat bada, latindar *cognomenen* artean bilatu beharko dugu. Hautagaien artean, EDCSn urriak dira eta ez dut oso hurbil kasurik aurkitu: nominatiiboan, *Suilius* bat Sineun (Mallorca); hiru *Sollus* probintzia lugdunensean; bost *Sollius* narbonensean eta *Sollius* bat lugdunensean. Fernández Palacios (2002, Valentziako *Sollana* batekin erkatzen du (1237an *Suylana* lekukotua).

**Umaran** (Galdames). EAE-IGN zenbaitzuk daude, gureari dagokionak bi sarrera dituela: auzoa (ziur aski jatorrizkoa, Galdamesen), eta erreka, erreka, latsa (Galdames eta Gueñes zeharkatzen ditu). Direla gainerakoak honetatik eratorriak (adibidez Urduizko *Umaran* baserria), direla poligenetikoki sortuak, edozein kasutan horren entitate handia (bizigunea eta erreka da) Galdameskoaren jatorrizkotasunaren alde mintzo zaigu<sup>3</sup>. Lope Gartzia Salazarrekoak ere *Pedro Aldillas de Vmaran* bat aipatzen du (LBF, 370. or.).

<sup>3</sup> Abizena da (*H*)*umaran* XVI. mendetik, gehienak Galdameskoak eta baten bat Bermeokoa (!) direla (ik. DK). Gogora bedi, berehala aipatuko den *Martin de Uma(a)ranez* landara, Garibairen arabera Martin Bañez Artazubiagakoaren eraileetako bat izan zen *Ochoa de Umaran* (TAV, 90-92. or.), zeinen jatorria ez nekikeen non kokatu.

ANTROPONIMOA. Fernández Palacios (2011) ez du bere multzoan sartzen, eta bere tesian (Fernández Palacios, 2002, 1071. or.) gazt. *humorekin* pareka litekeela dio, nire ustez zeharo sinesgaitza. Izan ere, ez zait posibilitate deskribatzaile bidegarririk bururatzten.

Irigoyenek (1986, 67-68. or.) *ume* elementuarekiko parekaketa proposatu zuen, akitanieratik izen berezia ere baden izen arrunta: *Ombe-*, Lergako *Umme sahar* (bat edo bi PI, interpretazioaren arabera). Kronologikoki, elementu horren hurrengo agerria San Miguel de Pedrosoko monjetako baten izena omen da: *Umma* (759; Cog-301). PI bera dirudi, baina genero-mozioaren bidez femenino bihurtua (nahiz euskaraz, berez, *ume* maskulinoa zein femeninoa den). *Omaduenna* eta *Umaduenna* ere ageri dira Valvanerako 1079ko agiri batean (*apud* Irigoyen, 1986, 67-68. or.), eta Irigoyenek PI hau berau dakusa aztergai dugun toponimoaren jatorrian. Markatu nahi nuke, hala ere, euskal toponimo deantroponimikoen artean salbuespenezkoak direla oinarrian PI femenino bat dutenak. Berezko PI maskulino gisa *Ume* ez da sekula gutziz finkatu, baina *Gasteran* sarreran esan den bezala, izen arruntaren eta bereziaren arteko muga ez zen hertsia Antzinateko akitanieran, eta Erdi Aroan lausotasun horren lortzeki badela dirudi. Irigoyenek Nafarroarako (*El gran Pr. Nav.*, 1243) *Jaun Umea* aipatzen du, non *Jaunek* sexua argitzeko funtzioa duen. Deigarri suertatzen zait *Umaran* eta *Gasteran* elkarrengandik hain hurbil izatea, baina ez dakit hori nola interpretatu.

Zehaztu behar dut Bilboko 1492ko agiri batean *Martin de Vmaaran* aurkitu dudala (FDMPV-71), *Martin de Vmaranekin* batera, testuingurua ikusita gure toponimoari lego-kiokiena. Hori Irigoyenen aieruaren alde mintza liteke (*\*Um(m)a-(h)aran* > *Umaaran*), ez bada asimilazioa (*\*Um(m)e-haran* > *\*Umearan* > *Umaaran*) edo hitz-elkarketako aldaketa gertatu.

Toponimoaren oinarrian antroponimo bat dugula, eta antroponimo hori *Ume* edo *Uma* dugula suposatutik ere, kasu honetan bereziki zaila litzateke jatorriaren inguruko ondorio fidagarrikerik ateratzea.

#### **4. Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako toponimoen interpretazio baterantz**

Toponimo hauetako batzuen oinarrian daudekeen antroponimoen estratigrafia eta jatorri posibleak ikusita, eta Enkarterriren inguruko testuinguru historikoa kontuan harturik, uste dut *PI-(h)aran/(h)uri* motako toponimoon sorrera kokatzeko garai proposena XI. mendea, eta zehazkiago Gartzia Naiarakoa Nafarroako erregearen erregealdia (1035-1054), izan litekeela. Haren aitaren (hots, Antso Handiaren) erregealdian, Araba eta Gaztela antzinako konderriak Nafarroako Erresumara erantsi ziren, eta Bizkaia barruti politiko-administratibo burujabe bihurtu zen. Hil zenean, Gartzia Antsoiz III.a premuak Nafarroa jaso zuen eta, hainbat gorabeheraren ondoren, haren anaia Fernando Leonez eta Gaztelaz jabetu zen. Bi anaiak sutsuki borrokatu ziren, ezaguna denez Gartzia Naiarakoa 1054an Atapuercan erail zuten arte.



**1. mapa.** Lope eta Galindo Bellakozen XI. mendeko tenentziak eta Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako toponimoak.

Errege horren erregealdiaz, aurreko erregeenez eta Arabaren eta Bizkaiaren arteko nagusitasunaz ari dela, Ortega Galindo honela mintzo zaigu:

Es en este momento cuando se produce una «inversión» del frente. Vizcaya, que hasta ese momento figuró a espaldas de la frontera alavesa, pasa a ser línea avanzada del Reino vascón con la monarquía castellanoleonés. Es preciso organizarla y fortalecerla debidamente en previsión de los roces que fatalmente han de producirse entre los hermanos Fernando I y García Sánchez (Ortega Galindo, 1976, 163. or.).

Izan ere, Bizkaiko lurraldea egituratu zuen, 1051n Bizkaiko eta Durangoko monasterioei ingenuitatea emanaz, eta Eneko Lopez, Bizkaiko eta Durangoko kondea, Nafarroako Erresumaren mendeko bilakatuz guztiz.

Baina mendebalderago ere izan zuen eraginik Gartzia Naiarakoaren politikak. Jakin badakigu, Toledon gordetzen den agiri bati esker (ik. Etxebarria Mirones & Etxebarria Mirones, 1994, 52. or.), Estefaniarekin ezkondu zenean errege nafarrak ezkonsari gisa erresumako hainbat lurraldetako errentak eman zizkiola. Lurralde horietan *tenenteak* ziren Gartzia Naiarakoaren gorteko zenbait jaun, eta haien artean honakoak dauzkagu: [...] *Senior Lope Vellaco, et senior Galindo Vellaco, cum Colindris et cum Huart, et Mena vel Tutela, et Lanteno cum omni pertinentia eorum.*

Hala, 1. mapan bi anaion tenentziak adierazi dira, gehi aztertu ditugun toponimoak. Ikus daitekeenez, PI-(h)aran/(h)uri motako toponimoak agirian aipatzen den tenentzia-multzo baten eta (ziur aski itsasportu-izaerak garrantzi geoestrategikoa ema-



ten zion) egungo Ugarteren artean geratzen dira. Lan honetan proposatzen den ideia honako hau da: hauek Gartzia Naiarakoaren politikak kolonoen bidez susperturiko kokalekuak ditugu, muga-eskualde hori gotortzeko eta antolatzeko. Baliteke kolonook Arabako mendialdean (edo agiritan azpiordezkatuta dagoen Lautadan) izatea jatorria, eta berekin euskara Enkarterriren ekialdeko herenera eraman zuketean.

Baina bada gehiago. Egungo Errioxarako, Petersonek (2009, 350-363. or.) erakutsi du Oja eta Tirón ibaietako arro beheeretan badirela *X-uri* formako toponimo deantroponimiko batzuk, zeinen debutak edo lehen agerraldiak Cog-ean (edo beste edozein iturritan) honakoak diren: *Herramellori* (1067), *Blascori* (1068), *Naharruri* (1070), *Ogganduri* (1090), *Olauri* (1182). Lehen agerraldiak ez du inplikatzeko inondik ere kokaleku jakin bat urte horretan fundatu zenik. Aitzitik, toponimoak multzoka aztertu behar dira, eta beren atzean daukaten testuinguru historikoarekin harremanetan jarri. Kasu honetan, zentzuzkoena dirudi aurreko belaunaldiko politikarekin lotzeak, Gartzia Naiarakoarenarekin, alegia. Honen erregealdian, Oja ibaiak Nafarroaren eta Gaztelaren arteko muga izateari (izana zen bezala) utzi zion, eta gertakari horretan bilatzen du Petersonek toponimo-multzoaren azalpena: «una posibilidad interesante sería que estos asentamientos fuesen productos de la política de García de Nájera de potenciar una comarca anteriormente fronteriza, y aunque no despoblada, algo infradesarrollada». Kolono nekazarien bidez gauzaturiko birpopulaketa baten aurrean geundeke, beraz, eta oinarrian duten *PIek* Arabari (edo Nafarroari) begira jartzen gaituzte.

Gure kasuarekiko antzekotasunak nabarmenak dira, eta Petersonen azalpen sendoak proposatu dudan prozesuaren paralelo bat eskaintzen du, errege berarekin eta egoera politiko antzeko batekin. Ezberdintasuna zerean datza: Errioxako toponimoak diploma-ekoizpeneko gune garrantzitsuetatik hurbil direnez, haien lehen agerpenak sarriak dira belaunaldi baten edo biren buruan; Enkarterrikoak, ostera, oso berandu dokumentatzen dira, eta haien balioespenean haztamuka gabiltza.

## 5. Ondorioak

Froga zirkunstantzialak baino aurkeztu ez ditudala jakitun naizenez, lan honen proposamen xumea ahalik eta modu zuhurrenean formulatuko dut, amaitzeko: Enkarterriren erdialdeko *Gasteran*, *Muñeran*, *Obekuri*, *Otxaran*, *Sollaran* eta *Umaran* toponimoek unitate bat osa balezate, hau da, garai berean eta egoera historiko-politiko beraren ondorioz eratu balira, horretarako hautagai onena Gartzia Naiarakoaren erregealdia litzateke, aipatu diren arrazoiak direla bitarte.

Prozesu horretan, Sopusertako *Obekuri* dugu zantzu argienak eskaintzen dizkigun kasua. Gainerako guztiak, banaka harturik, oso zalantza izan daitezke direla onartu behar da. Baina, *tout se tient* printzipio estrukturala aldarrikatuz (eta Fernández Palaciosen proposamen bat zabaltzen ari naizela gogoratuz), hipotesi bezala hainbeste *PI-(h)aran/(h)uri* multzokatu garai eta egoera berean eratu zirela aintzat har litekeela deritzot.

## Erreferentziak

- Arzamendi, J. (1985). *Términos vascos en documentos medievales de los ss. XI-XVI*. Bilbo: UPV/EHU.
- AV = Mitxelena, 1997 [1955].
- Azkarate, A. & García Camino, I. (1996). *Estelas e inscripciones medievales del País Vasco (Siglos VI-XI). I. País Vasco Occidental*. Bilbo: Eusko Jaurlaritzza-UPV/EHU.
- Bañales, G. & Gorrotxategi, M. (2007). *Toponimia histórica de Barakaldo*. Barakaldo: Librería San Antonio.
- Carrasco Pérez, J. (arg.). (1973). *La población de Navarra en el siglo XIV*. Iruñea: Universidad de Navarra.
- Clauss, M., Kolb, A., Slaby, W. A. & Woitas, B. (d. g.). Epigraphik-Datenbank Clauss / Slaby [datu-basea]. <http://www.manfredclauss.de/> helbidetik eskuratua.
- Cog = Tinti & Larrea, d. g.
- CSJP = Ubieto Arteta, 1962-1963.
- DK = Eusko Jaurlaritzza, d. g. a.
- EAE-IG = Eusko Jaurlaritzza, d. g. b.
- EDCS = Clauss, Kolb, Slaby & Woitas, d. g.
- EIMPV = Azkarate & García Camino, 1996.
- Enríquez, J., Hidalgo de Cisneros, C., Lorente, A. & Martínez, A. (1994). *Fuentes jurídicas medievales del señorío de Vizcaya. Fueros de las Encartaciones, de la merindad de Durango y de las ferrerías. Fuentes documentales medievales del País Vasco 51*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Enríquez, J., Hidalgo de Cisneros, C., Lorente, A. & Martínez, A. (1996). *Repartimientos y foguera-vecindario de Bilbao (1464-1492). Fuentes documentales medievales del País Vasco 71*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Etxebarria Mirones, J. & Etxebarria Mirones, Tx. (1994). *Orígenes históricos de las Encartaciones. Siglos X-XIII. Toponimia, onomástica y lengua propia*. Bilbo: Industrias gráficas Garvica.
- Eusko Jaurlaritzza (d. g. a). DokuKlik. Agiri sakramentalak [datu-basea]. <https://doku.klik.euskadi.eus/> helbidetik eskuratua.
- Eusko Jaurlaritzza (d. g. b). EAeko Izendegi Geografikoa [datu-basea]. <http://www.euskadi.eus/app/eaeko-izendegi-geografikoa/nomenclator/> helbidetik eskuratua.
- FDMPV-51 = Enríquez, Hidalgo de Cisneros, Lorente & Martínez, 1994.
- FDMPV-58 = Larrañaga & Lema, 1995.
- FDMPV-71 = Enríquez, Hidalgo de Cisneros, Lorente & Martínez, 1996.
- Fernández Palacios, F. (2002). *Lengua e historia del Asón al Cadagua* (doktore-tesia). Universidad Complutense, Madril. <https://eprints.ucm.es/4739/1/T26714.pdf> helbidetik eskuratua.

- Fernández Palacios, F. (2011). Hacia una cronología de la toponimia románica y vasca en las Encartaciones (Vizcaya). *Oihenart*, 26, 163-175.
- FHV = Mitxelena, 1961/1977.
- Goyhenetche, E. (2011 [1966]). *Onomastique du nord du Pays Basque (XIe-XVe siècles)*. Iker 27. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Irigoyen, A. (1982). Sobre el topónimo Gasteiz y su entorno antroponímico. In Askoren artean, *Vitoria en la Edad Media, Actas del I Congreso de Estudios Históricos celebrado en esta ciudad del 21 al 26 de setiembre de 1981, en conmemoración del 800 aniversario de su fundación (621-652. or.)*. Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala.
- Irigoyen, A. (1986). *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Larrañaga, M. & Lema, J. A. (1995). *Colección de documentos medievales del convento de San Bartolomé (San Sebastián) (1250-1515). Fuentes documentales medievales del País Vasco 58*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- LBF = Rodríguez Herrero, 1984.
- Leir = Martín Duque, 1983.
- Martín Duque, A. J. (1983). *Documentación medieval de Leire (siglos IX a XII)*. Iruñea: Nafarroako Foru Diputazioa.
- Mitxelena, K. (1977 [1961]). *Fonética histórica vasca. ASJUren gehigarriak 1*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Mitxelena, K. (1990 [1964]). *Textos arcaicos vascos. ASJUren gehigarriak 11 (3-201. or.)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia-UPV/EHU.
- Mitxelena, K. (1997 [1955]). *Apellidos vascos*. Donostia: Txertoa.
- Mitxelena K. & Sarasola, I. (2019). *Orotariko euskal hiztegia* (6. argitalpena). Bilbo: Euskaltzaindia. [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_oeh&view=frontpage&Itemid=413&lang=eu](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oeh&view=frontpage&Itemid=413&lang=eu) helbidetik eskuratua.
- OEH = Mitxelena & Sarasola, 2019.
- ONPB = Goyhenetche, 2011 [1966].
- Ortega Galindo, J. (1976). El nacimiento de Vizcaya. La doble personalidad de los condes. El origen de la comunidad. In Askoren artean, *Vizcaya en la Alta Edad Media (143-181. or.)*. Bilbo: Junta de Cultura de Vizcaya.
- Otxoa Garai, A. (2015). *Zallako toponimiari buruzko ikerketa linguistikoa* (dokortesia). Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Peterson, D. (2009). *Frontera y lengua en el Alto Ebro, siglos VIII-XI*. Logroño: Instituto de Estudios Riojanos.
- Peterson, D. (2010). Antroponimia vasca en la Castilla condal (siglo X). In M. Bourin & P. Martínez Sopena (arg.), *Anthroponymie et migrations dans la chrétienté médiévale* (105-122. or.). Madril: Casa de Velázquez.

PNXIV = Carrasco Pérez, 1973.

Rodríguez Herrero, A. (arg.). (1984). *Las bienandanzas e fortunas (IV. liburukia, XX-XXV liburua)*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.

Ruiz Asencio, J. M., Ruiz Albi, I. & Herrero Jiménez, M. (arg.). (2010). *Los becerros gótico y galicano de Valpuesta*. Madril: Real Academia Española.

Salaberri, P. (2003). *Euskal deiturategia: Patronimia*. Bilbo: UEU.

Salaberri, P. (2017). Estudio de los nombres de los pueblos y despoblados del valle de Gesalatz (Navarra). *FLV*, 124, 219-250.

TAV = Mitxelena, 1990 [1964].

Tinti, F. & Larrea, J. J. (zuz.). (d. g.). Becerro Galicano Digital. [www.ehu.es/galicano](http://www.ehu.es/galicano) helbidetik eskuratua.

Ubieto Arteta, A. (arg.). (1962-1963). *Cartulario de San Juan de la Peña (I eta II liburukiak)*. Valentzia: Textos medievales.

Valp = Ruiz Asencio, Ruiz Albi & Herrero Jiménez, 2010.



# Aurkibidea / Índice

- 11 Aitzinsolasa
- 13 Prólogo
- 15 Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa  
hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka  
ITZIAR ADURIZ, JOSE MARI ARRIOLA
- 31 Bertsolaritzaren genealogia subalternoak  
LUZIA ALBERRO, K. JOSU BIJUESCA
- 47 Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten  
behinbehineko emaitzak  
ESTIBALIZ AMORRORTU, ANE ORTEGA, JONE GOIRIGOLZARRI
- 63 Garaziko euskararen azterketa diafasikoa  
ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA
- 81 Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten  
delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat  
MIKEL AYERBE SUDUPE
- 95 Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga  
GOIO BAÑALES, MIKEL GORROTXATEGI
- 113 Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko  
pilota-elkarte batean  
IÑIGO BEITIA
- 127 Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa  
GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA, BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA
- 141 Lingüística Histórica: estado actual  
LYLE RICHARD CAMPBELL
- 163 Lenguas y sociolingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX:  
testimonios del Archivo Zavala  
BRUNO CAMUS BERGARECHE, SARA GÓMEZ SEIBANE

- 177 Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie  
DENIS CREISSELS, CÉLINE MOUNOLE
- 195 Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren  
didaktikan  
LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA, ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI, LUIS MARI  
LARRINGAN ARANZABAL
- 209 Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan  
AMAIA ELIZALDE ESTENAGA
- 223 Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen  
ARANTZAZU ELORDIETA
- 237 Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa  
eraikitzen  
AINARA ESTARRONA, IZASKUN ETXEBERRIA, RICARDO ETXEPARE, MANUEL  
PADILLA-MOYANO, ANDER SORALUZE
- 253 Ahozkotasunaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta  
AINHOA EZEIZA, JAVIER ENCINA
- 267 Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako  
INES M. GARCIA-AZKOAGA, OLATZ BENGOETXEA, JOSUNE ZABALA
- 283 El corónimo navarro *Salazar / Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble  
denominación  
ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
- 295 *Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia  
del Euskara  
JOAQUÍN GORROCHATEGUI
- 315 Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz  
MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN
- 329 Basque among the world's languages: a typological approach  
IVÁN IGARTUA
- 351 Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización  
lingüística  
PAULA KASARES
- 363 Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement  
bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord  
BEÑAT LASCANO
- 375 Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari  
ITZIAR MADINA
- 391 Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko  
muga lausoa  
ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

- 405 Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza: berrikuntza didaktikoa eta soziala?  
IBON MANTEROLA
- 421 Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak  
MIKEL MARTÍNEZ ARETA
- 437 Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation: the case of the Basque particle *ote*  
SERGIO MONFORTE
- 453 Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen ikas-irakaskuntzaren adibidea  
AROA MURCIANO EIZAGUIRRE, ARANTZA OZAETA ELORTZA
- 467 Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketez  
MARI JOSE OLAZIREGI
- 485 Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean  
ARGIA OLÇOMENDY
- 501 Euskararen postposizioak  
JAVIER ORMAZABAL
- 517 Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean  
LUIS PASTOR
- 533 Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study  
IKER SALABERRI
- 547 Externalization and morphosyntactic parameters in Basque  
HISAO TOKIZAKI
- 561 XIX. mendeko Debagoieneko testuez zenbait argitasun: egiletasuna eta iturriak  
OXEL URIBE-ETXEBARRIA
- 579 Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak  
LAURA VELA-PLO
- 595 Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian: bukaeran -(iz)amo duten leku-izenak  
LUIS MARI ZALDUA

**Izenburua/Título:**

Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari/Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

**© Argitaratzaileak/Editores:**

Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño

**© Egileak/Autores:**

Itziar Aduriz, Jose Mari Arriola, Luzia Alberro, K. Josu Bijuesca, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, Jone Goirigolzarri, Alexander Artzelus Muxika, Mikel Ayerbe Sudupe, Goio Bañales, Mikel Gorrotxategi, Iñigo Beitia, Garbiñe Bereziartua Etxeberria, Beñat Muguruza Aseginolaza, Lyle Richard Campbell, Bruno Camus Bergareche, Sara Gómez Seibane, Denis Creissels, Céline Mounole, Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Luis Mari Larringan Aranzabal, Amaia Elizalde Estenaga, Arantzazu Elordieta, Ainara Estarrona, Izaskun Etxeberria, Ricardo Etxepare, Manuel Padilla-Moyano, Ander Soraluze, Ainhoa Ezeiza, Javier Encina, Ines M. Garcia-Azkoaga, Olatz Bengoetxea, Josune Zabala, Roberto González de Viñaspre, Joaquín Gorrochategui, Miren Ibarluzea Santisteban, Iván Igartua, Paula Kasares, Beñat Lascano, Itziar Madina, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Ibon Manterola, Mikel Martínez Areta, Sergio Monforte, Aroa Murciano Eizaguirre, Arantza Ozaeta Elortza, Mari Jose Olaziregi, Argia Olçomendy, Javier Ormazabal, Luis Pastor, Iker Salaberri, Hisao Tokizaki, Oxel Uribe-Etxebarria, Laura Vela-Plo, Luis Mari Zaldua

**© Argitaratzailea/Edita:**

Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra

Kultura eta Kirol Departamentua/Departamento de Cultura y Deporte

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

Lanak adituek berrikusi dituzte, itsu bikoitzeko sistemaren bidez/Los trabajos han sido revisados por pares doble ciego.

**Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación:**

Kö estudio

**Imprimaketa/Impresión:**

Linegrafic

ISBN: 978-84-235-3561-3

LG/DL: NA 1438-2020

**Sustapena eta banaketa/Promoción y distribución:**

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa/Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21

31002 Iruña/Pamplona

Tel.: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

# Fontes Linguae Vasconum 50 urte.

2019an 50 urte egin zituen Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta* euskal hizkuntzalaritzako aldizkariak.

Horren gorazarre, liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatura-ikerketan zertan den erakutsi nahi du. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belaunaldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

---

La revista de lingüística vasca *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*, publicada por la Institución Príncipe de Viana del Gobierno de Navarra, cumplió 50 años en 2019.

En homenaje de la efemérides, este libro pretende dar cuenta del estado actual de la investigación en lingüística y literatura vascas. Investigadores de gran trayectoria y nuevas generaciones se reúnen en esta publicación para tratar, entre otros temas, sobre dialectología, didáctica de la lengua, filología, gramática teórica, tipología lingüística, lingüística histórica, traducción, literatura, onomástica y sociolingüística.

ISBN: 978-84-235-3561-3



9 788423 535613